# BESTELAKO XEDAPENAK

## HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

## 458

*1/2013 EBAZPENA, urtarrilaren 10ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako honako erabaki hau argitara emateko dena: «Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketari interes orokorreko arrazoiengatik uko egiteko Erabakia».*

2012ko abenduaren 11n egindako bileran, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako erabaki hau onartu zuen: «Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketari interes orokorreko arrazoiengatik uko egiteko Erabakia»; eta erabaki horri behar bezalako zabalkundea ematearren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian honako erabaki honen testua argitara ematea: «Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketari interes orokorreko arrazoiengatik uko egiteko Erabakia», ebazpen honen eranskin gisa ageri dena.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 10a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK URTARRILAREN 10EAN EMANDAKO 1/2013 EBAZPENARENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MAIZTASUN MODULATUKO UHIN METRIKOEN BIDEZKO IRRATI-KOMUNIKAZIOKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO LIZENTZIAK EMATEKO LEHIAKETARI INTERES OROKORREKO ARRAZOIENGATIK UKO EGITEKO ERABAKIA.

2012ko otsailaren 26an, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako erabaki hau onartu zuen: Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoaren oinarriak onartzeko Erabakia. Gauzak horrela, eta Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko abenduaren 8ko 231/2011 Dekretua betez.

Organo eskudunak irekitako prozeduraren bidez gauzatutako espedienteari hasiera emanik, lehiaketa horri uko egin behar zitzaiola ikusi zen, interes orokorreko arrazoiengatik.

Arrazoi horiek honako hauek dira: Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko Lege Orokorrean egindako aldaketak; Ministro Kontseiluaren erabakiak, hedabideak lehiaketaren oinarrien alderantzizko zentzuan metatzen laguntzen dutenak; 25 urte baino gehiago igaro izana egindako azken lehiaketatik; eta oinarrietan lizentziak emateko 15 urteko epea aurreikustea, izaera estrategikoaren maila ematen diona.

Horregatik guztiagatik uko egiten zaio lehiaketari.

Horren indarrez, Kulturako sailburuak proposaturik, eta dagokion eztabaida egin ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

«Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun modulatuko uhin metrikoen bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketari uko egiten zaiola adieraztea.

Bigarrena.– Erreferentziako espedientea artxibatzea, ebazpen hau interesdunei jakinaraztea eta, behar izanez gero, egindako ukoa dagokien aldizkari ofizialetan argitaratzea».